

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA

Azterketa-eskubideen edo beste hautaketa-proba batzuen tasa arautzen duen ordenantza fiskala behin-betiko onartzea

Arabako Mendialdeko Kuadrillako Batzarrak, 2022ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Azterketa-eskubideen edo beste hautaketa-proba batzuen tasa arautzen duen ordenantza fiskalari hasierako onespena ematea erabaki zuen.

Hasierako onarpenaren iragarkia 2022ko urriaren 14ko ALHAOn argitaratu zen (117. Zenbakia). Jendaurrean jartzeko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betiko bihurtu da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan eta aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, ordenantzaaren testu osoa argitaratzen da, behin-betikoa dena, indarrean sar dadin.

AZTERKETA-ESKUBIDEEN EDO BESTE HAUTAKETA-PROBA BATZUEN TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. FUNTSA ETA IZAERA

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 15. artikulutik 19.era bitartekoetan xedatutakoaren ildotik ezartzen du Mendialdeko Kuadrillak azterketa-eskubideengatik ordaindu beharreko tasa, eta ordenantza fiskal honetan arautzen.

II. ZERGA-EGITATEA

2. artikulua

Honako hau da tasaren zerga-egitatea:

a) Arabako Mendialdeko Kuadrillak hutsik dauden funtzionario lanpostuak jabetzan betetzeko deitzen dituen azterketa, merezimendu-lehiaketa eta azterketa/merezimendu-lehiaketa ireki nahiz murriztuetan parte hartzeko eskabidea egitea.

b) Arabako Mendialdeko Kuadrillak kontratazio zerrendak sortzeko deitzen dituen hautatze prozesuetan parte hartzeko eskabidea egitea, baldin eta zuzeneko deialdien bitartez bideratzen badira eta gutxienez ariketa bat egitea badakarte berekin.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. artikulua

Honako hauek dira subjektu pasibo zergadunak: lehiaketa, oposizio eta lehiaketa-oposizio-etarako hautagai gisa lehiatzea eskatzen duten pertsona fisikoak, direla libreak, mugatuak edo salbuespenezkoak, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzekoak eta Arabako Mendialdeko Kuadrillak funtzionario edo lan-kontratadun langileen plaza hutsak jabetzan betetzeko deitzen dituen Kontratazio Zerrendak sortzen dituzten hautaketa-prozesuetakoak.

IV. ZERGAREN KUOTA

4. artikulua

Bete beharreko lanpostuaren taldearen arabera zehaztuko da lehiatzaile edo hautagai bakoitzak ordaindu beharko duen kuota, ondorengo eskala hau baliatuz:

A) Lan-eskaintza publikoa: lehiaketa-oposizioa.

TALDEA	2022KO KUOTAK
A	59,95 euro
A2	58,37 euro
C1	48,07 euro
C2	45,40 euro

B) Lan-eskaintza Publikoa: lehiaketa.

TALDEA	2022KO KUOTAK
A1	38,24 euro
A2	37,25 euro
C1	30,26 euro
C2	28,48 euro

C) Kontratazio-zerrendak sortzeko deialdia.

TALDEA	2022KO KUOTAK
A1	23,33 euro
A2	21,87 euro
C1	20,58 euro
C2	19,44 euro

Azterketaren kopiak: Azterketaren kopiak: 10 euro azterketa bakoitzeko —galdera-orrien kopia, erantzun-orriaren kopia eta, kasuan kasu, zuzenketa-irizpide orokorren edo erantzun zuzenen txantiloia barne—.

Akta-egiaztagiriak: 10 euro egiaztagiri bakoitzeko. Egiaztagiriak banakoak izango dira beti.

V. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

5. artikulua

Tasaren sortzapena hautaketa-probetan izena emateko eskabidea egiten den unean sortuko da, eta beharrezkoa izango da tasa ordaintzea, probetan parte hartu ahal izateko.

Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea zabalik dagoen bitartean ordainduko da tasa. Epe hori eskaintzen diren plazak erregimen desberdinetan betetzeko deialdiak arautzen dituzten oinarrietako bakoitzean zehaztuko da..

6. artikulua

Dagokion eskabidea bete ondoren, banku-erakunde laguntzaileen bidez ordaindu beharko da tasa, inskripzio-eskabidean agertzen diren kontu-zenbakietako batean.

Eskabidea beteta eta ordainketa egin izanaren egiaztatzea Arabako Mendialdeko Kuadrillan batera aurkeztu beharko dira .

Tasa osorik ordaindu izana justifikatu ezean, hautagaia hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

Behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, ez da inola ere onartuko tasa itzultzeko eskabiderik.

7. artikulua

Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, tasaren zergapeko egitatea osatzen duen jarduera teknikoa eta/edo administratiboa egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuli beharko da. Beraz, ez da azterketa-eskubiderik itzuliko interesatuari egotzi ahal zaizkion kausengatik hautatze-probatetik kanpo geratzen bada.

VI. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**8. artikulua**

Tributuen arloko arau-hausteen kalifikazioari eta arau-hauste horiei dagozkien zehapenak zehazteari buruzko guztian, Tributuen Lege Orokorrean eta hura garatzen duten gainerako xedapenetan araututako araubidea aplikatuko da.

Xedapen gehigarria

Arrazoi sistematikoak direla medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat, jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

Azken xedapena

Ordenantza hau, behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren bihar-amunean jarriko da indarrean, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

Ordenantza fiskal hau behin betiko onartzearen aurka, interesatuek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hala ere, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez dezake.

Guztiekin jakin dezaten ematen da argitara hau.

Santikurutze Kanpezu, 2022ko azaroaren 29a

Presidentea

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA